

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak eta Iberdrolak Berako zentral hidroelektrikoa lagapen bidez eskuratzeko akordioa lortu dute

Bidasoako ibai-espazioa hobetzeko eta arrain-fauna kontserbatzeko GURATRANS proiektu europarraren barnean sartzen da

Viernes, 05 de diciembre de 2014

Nafarroako Gobernuak eta Iberdrola Renovables akordio batera iritsi dira Berako zentral hidroelektrikoa lagapen bidez eskuratzeko, Bidasoa ibaian, ibai-espazioa hobetzeko eta arrain-fauna kontserbatzeko helburuarekin, Uraren [Zuzentarau Esparruak](#), Habitaten Zuzentarauak eta Uholdeen Zuzentarauak adierazitako printzipioei jarraiki.

Akordioa honako hauek izenpetu dute: Nafarroako Gobernu Ingurumen eta Uraren zuzendari nagusi Andrés Eciolazak, eta Iberdrolako ordezkari Roberto Izagak, iparraldeko Iberdrola Renovables negozioaren arduradunak, eta Eduardo Ryanek, Nafarroako Iberdrolako ordezkariak. Ur Zerbitzuko zuzendari César Pérezek ere parte hartu du ekitaldian.

Beste elementu batzuen artean presa txiki edo oztopo batez osatutako Berako zentrala, Iberdrolarena da, gaur egun erabili gabe zegoen eta GURATRANS Europako proiektuaren barnean elementu interesgarritzat jotzen zen, honako hau lortzeko xedearekin: aldean arteko hurbilketa bat eginez, oztopo fisikoak kentzeko ahaleginean aurrera egitea ibaiaren jarraitutasuna eta bertako ekosistema hobetzeko.

Bidasoa eta haren ibaiadarren arteko lotura berrezarri

Iberdrolak Nafarroako Gobernuari egindako lagapenak esan nahi du, Ingurumen eta Uraren Zuzendari Nagusia azken hamabi urteotako lanaren lerroetako batean aurrera egitea: Bidasoa ibaiaren eta haren ibaiadarren arteko luzetarako lotura berrezartzea.

Zentrala osatzen duten elementu guztiek (presa txikia, ubidea eta makinaren eraikina) "Bidasoa Ibaia" Garrantzi Komunitarioko Tokian dago; hura, Kontserbazioko Gune berezi izendatu zen iragan uztailan, 51/2014 Foru Dekretuaren bidez. Haren Kudeaketa Planaren helburu operatiboetako bat "uretako korridorean dauden oztopoak irazkortzea" da, eta aurreikusitako jardueren artean jasotzen da, Nafarroako Gobernuak egiten ari den "Bidasoako arroan presak irazkortzeko eta eraisteko



Ezkerretik eskuinera: Izaga, Ryan, Eciolaza eta Pérez.

neurriekin jarraitzea".

Nafarroako Gobernuak Ondare Zerbitzuarekin datozen asteotan gauzatuko den akordio horren izenpetzea, duela urtebete jabeak (Iberdrola Renovables Energía) eta inguruko beste eragile batzuk hurbiltzeko eta inplikatzeko hasitako bitartekotza-prozesu baten emaitza da: elkarteak, udala, bai eta Kantabriako Konfederazio Hidrografikoa; horrekin batera, presa txikiak kentzeko aukeren gainean egindako prospekzioko azterketak egin izanaren emaitza da ere. Akordio horri esker, eta proiektuak dituen xede sozial eta ingurumenekoengatik, Iberdrola Renovables Energía Nafarroako Gobernuari zentral txikiari lotutako finka euro bateko prezio sinbolikoan eskualdatzeko aukera eskaini zion, bai eta jabari publikotik at dauden instalazioak ere.

Izenpetze horrekin, beste etapa bat hasten da eta bertan eraisteko eta aztertzeko egikaritze-proiektuarekin amaitu behar da, erantsitako instalazioetarako aukerako beste erabilera batzuen gaitasun eta bideragarritasunari buruzkoa.

Jarduera [Guratrans "Pirinioetako mendebaldeko mugaz gairdiko ibaietako kudeaketa integral eta parte-hartzailea"](#) Europako proiektuan jasotako erreferentziazko esperientzien barnean dago. Nafarroako Gobernuak, [Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroa](#) fundazioarekin (CRANA) batera, parte hartzen duen proiektuak honako xede hau du: mugaz eta eskualdez gairdiko kudeaketan aurrera egitea eta, hari esker, Araxes, Bidasoa, Leizaran, Nivelle eta Urumea ibaietako baliabide hidrikoen koordinazio hobea eta kontrol handiagoa izan ahalko da; horrekin batera, toki-esparruan jardunbide egokien esperientziak sustatzea.